


Gure idazleak AZKUE

Resurreccion Maria Azkuek 1893an argitaratu zuen *Bein da betiko* ipuin luzea. Bizkaieraz eta Lekeitioko azpieuskalkian idatzi zuen lana (guk lekeitiar erara idatzitakoa aukeratu dugu). Gainera, bertan kontaktzen den historia gure herriko kontakizun baten oinarrituta dago. Azkueren ipuin hau hona badakargu, batetik, Azkue zena ezin dugulako ahaztu da eta honekin omenaldi txiki bat egin nahi diogulako eta, bestetik, gure nagusiek telebistarik eta irratirik ez zegoen denboretan ahoz aho mendeetan zehar belaunaldiz belaunaldi transmitituriko ondare hau galdu nahi ez dugulako. Baita ere ikusi dezagun XIX. mendearen amaieratik hona, ehun eta gutxi urtetan, zenbat aldatu den gure artean euskara. Irakurri (ikaratu barik ortografia arraroa eginda) altxor txiki, eta era berean handi, hau eta ikusiko duzu zenbaterainokoa izan den aldaketa gure aitita-amumen denboretatik hona. Ondoren *Bein da betiko* irakurgaiaren kapituluaren hasierak.



TŠAKOLINTEGI BATEN I

Ezeukan goiz atan Maripak barriketan iarduteko gogo andirik. Noižik noižera amantalaz igôzten ebazan beren (bere) begi negartsu ta gorriñuak.

Otondotšu batzuk ur goritan sartu ebazanian 'sokondoko gižonai arpegi tšimurduna erakutsidšaz' «ke andidša dago gižonak (esan eutsen) eta eztaukazue beste lau egunian bô itšasoraterik. Ekatš gogorren ba takar aiže onek dandarrez.

—¿Zer, bâ, Maripa? erantzun edo iardetsi eutsen Maripari itšas-gižon arek.

—¿Enakutsue begidšak edegi eziñik?

—Astuen arrantzak eta emakumien negarrak 'bâkigu, Maripa, zer balidšo daben.

--Eztaukat zeueri ezer esateko. Etzarie zuek asko erreko'itšasuak betondo iluna agertuarren; liorrian ondo zagoze; no tšaten emon eukiez kero'eztautsue lo-sorrua asko ariñdu edo sumatuko'mairako lainñ nok ekarri egon ezak. Aaaur dabil nire senar taketa bē: tmezaiñ (aurzaiñ edo seiñ-dšagole ez esatiarren), dindirri-urtika ta kaliak austen. Amabidšetako tšiliñen durundi edo iskanbilak betiko moduan ekarriko dau a maira.... đsan-edanerako bē eztirudi baiña... on egiñ daidšola.

—Aulan; aaulan Maripa. Goiz guztidšan ortše euki

II

KAI-GANIAN EGOTALDITŠU BAT

Tšanton kaleratu baiño lentšuago' bere (beren) adiskiadiak kai-ganian batera ta bestera ebiltzan (ebiltzazan)' aižiak puzturiko orbelen antzera; geidšenak kaltzerpian eukezan eskuak, bate pakarrik erabiltzan (erabiltzazan) aidian. Urrunetik ezautu ebazan Tšantonek; eta egidša esateko' eukazan baižen begi zuur da ziurrak euki ezarren' ezaban asko urreratu biar' berbetan da eskuketan iarduan (ziarduan) mandazaiña ezaututeko.

Uda ta negu' soiñeko bardiñak erabiñten ebazan onek: zapi gorrizka bat buruan' tšapel-orde, oraldi-antzeko

kaltza laburrak, dšakerik ez (dšantzirik beintzat), garriko (gerriko) luze ta zabala, abarkatšu edegidšak (idigidšak), kaltzerdi urdiñ bizardunak eta berarižko tšartes nasai bat. Bere kokot gorri mamintsuari ta berna biribiñ guri-dšari begiratueran' «jamajka okela-tato iruntzi dauz (ditu) orrek!» esan eruën (eroien) *Arranegiko* atsuak. Ezekidšan išilik berba eiñen, zuzen ibiñten bēz.

Tšanton urreratu dšakenian' barre-santzoka edo algaraka eukazan mandazaiñak bere entzule guztidšak. Tšantonek bere lepotik ziarduela uste ižango eban' Tšili eritšon gižon sendo bat zerbaif esatera aurreratu ezpalitžakidšo.

III

MARIPA TA KATALIN

«Berandutšu etegoiazan nago, Kataliñ.

—Ez, Maripa: tšiliñak badiardue, ta išilduarte ezta Eližkižuna asiko.

—¿Gure Tšanton lako gižonik! Ordurik eziñ iženta lekidšo. Esan neutsan orduan etorri balitz'onez kero Eližan gengozan. Nire agiñdu guztidšai baietz erantzuten dautse auz'egimenez ezetz. Kataliñ: ire senargai dontsu ori'nire senarra baiño esangiñaua ižan daiña.

—Perrandes, erridšan edozer esanarren, dšaseko mutiła da.

—¿Zer diñon, Kataliñ? ¿Dšasekua ori? ¿Ta ganera mutiła? Dšasa zer dan be eztaki orrek; mutiła dana bantzugu. ¡Bate paki eskonduta dagon ala ez!! Urruneko arraiñagaz kontuan ibiñi, Kataliñ.

—I peti olakoše detua t'ekiña.

—Gaztetasuna zorua da: gero egunen baten alperrik negar eiñiak eztau balidšo ižango. Tšantongaiñik nik edozer esan daroiat; baiña erbesteko gižon guztidšakaz bat eiñ al balitz be'naidšago ižango neuke ene senarra.

—¿Erbestian eziñ egon leike gižon onik?

—Gitiñan ikusi dot neu perori Eližan, da orduan be... ižan leike, baiña... nire surra kero... Óna Kataliñ: ezaut

TŠANTONEN BARRIRAZTASUNA

Aparidša auan eukela sartu zirian Maripañ tšakolintegidšan Erroke Leberin zaarra ta Santi amugiña. Euren etorreriari luze critšola egon zan Tšanton, apaldu ta gero semiari lo eraiñ eutsanetik ordušerarte. Tšili beste irurakaz ez ikusirik 'arratsaldeko eztabaidatšua gogoratu dšakon, da berak eiteko eukan itaunia 'Erroken autik entzun ebanian 'asko geitu dšakon bere keizura ta arrenkuria.

«Nun etedabiñ gaur Perrandesen aĩtaiñarreba izatekoa?

—¿Nor? ¿Tšili? Autik kendu daustak Erroke; neu be oriše itanduteko egon naiž. Beste egunetan ordu onetarako beti agertuten dšaku. ¿Ezer eiñ etedšako, ba? Bâkit urrian zek atzeratu daben gaur. Astakeridšak miñiañ artzen dabezala esan dausat arratsaldian, da ni parriž eztot bera miñdutiarren esan. Astakeridšak edo... neu pakiñ... arira eztatozan esakerak lantzian edo noižian beñ aiñatuten dabezana zetza egidša, gižonak? Enaižue gero salatu.

--Ezai umia ižan, Tšanton; ori baiño gora-bera ta lor geidšago dauka arek (ak) bidšotzian. ¿Eu gaur Eližara barik, e?

—Ez niri errurik ezarri, Erroke, an dagonari baiño.

OLGETAN-BENETAN V

Errokek dei egin eutseneko 'beraganatu zirian Maripa ta beste bidšak. Maripak kontuz ibilteko esan eutsan Errokeri 'umia iratzartu ezeidšan. Errokek baietz erantzun da gero 'modu onetan dšarraiñu eban here berbaldidša edo dšarduna: «Besarkada edo laztan bat emon daidšogun Tšanton ederrari' ezer adierazoten asi baiño lenago. Tšanton, dart dart ago i; ni parriž ziur dakiñ' Tšantonek ukabilkada bategaz Leberin zaarra Santi ta neu' irurok 'lurrera eratziko gendukezana. Entzun ondo guztidšok.

Pilipe Muitizko deritšon gižon gazte bateri (bati)' ondiño urte bi eztiriala 'seiñ edo aur makar makartšu bat dšaidšo dšakon. Urte ta erdi inguruan 'makal da erkiñ bai' baiña beste gora-bera bage biži ižan dšako seiñ ori. Ontše amabost egun, egubakoitz edo baridšaku edo ostiral-arratsalde baten, Pilipen emaztiak 'seiña lo itšita' Laižoletako errotara edo bolura iru zorrokada gari eidšotera eruan ebazan.»

Errokek ziarduan artian 'Tšantonek Leberin zaarrari isiñ isiñik ¿I, belarrira itandu eutsan, ni orretara nagona egidša da?» Leberin zaarrak barrea euki iziñik '«baietz, gižona», erantzun eutsan.

Markiñarako urteidšeran, *Alca* deritšon uri-mugan'eukan Perrandes mandazaiñak ostatua. Berarizko apaiñgarririk ezeukan etše onek; bere ormetan ezeben dšaubiak inoiž czotariko zuzenbiderik edo igargarririk ezarri; au gora-bera' Lekifar guztidšak antšinatšutik *Mandazaiñentzako Ostatua* esaten eutsen etše oni. Iru ate andi eukazan etšiak: bi kortarakuak; goiko biži-toki ta ganbararakua' irugarrena.

Lekiñoko uridšak' bai orduan ta bai arrezkero' kale luze luze bat dauka' bertako zurkulu idša guztidšak crakusten dabezana. Beste kaliak (onen aldian tšikidšak) erdi-konturatu bage bertara eruaten dabe bat, zein da' errekatšuaq ibai andira daroiezan urak letšek.

Iru arko edo arri-ustai euazan kalia bertan: kai-onduan bata, gaurko uri-etšiar dauksala bigarrena, bestia' *Alc*-aldian; eta iruretan zerutarren irudidšak lurtarren atsegiñcrako cregi ebazan dšaieriak edo oncrapenak. Kale onetantše euan Tšiliñ etšia, kale onetantše Mandazaiñentzako Ostatua, ta kalion bertan igaro zirian esateko daukaguzan gertacra gomutagarriidšak.

Gau atan ezekidšan mandazaiñak zer erabiñen eskuartian. Tšiliri erraidšak ardaaz berotuez kero' bere alabia

GUENA. VII

Laster agertu zan mandazaiña. Elizatša-aurreko bidia baiño besterik ezeukan aurreratuteko. Urruntšatik ikusi eban bertako argidša. Urreratu zanian' geriza andi bat argipian ikusirik' mando-ganetik dšatzi' arnasaz bete ta kurutze bat egiñaz barrura sartu zan. Ketan euan atia, ta esku andi baten ezaugarriidša eukan ezarririk.

«¿*Quiñ crcs?* itandu cutsan' kaltza-barrenetik oratuaz' auspaz euanari.

—Perrandes, dšaso ñaik.

—Tšili zelan emen?

—Aingeruak ekarri aue ona. Nik onen saritzat emon al daikedan gauzarik balego...


—Badago.

—¿Zer?

—Katalin.

—Bai.

Oartu bei. Eskerreko crreskadan Bizkai guztiko izkera edo berbete bat egiña oitu dogu; eskumakuan ' Lekitokua.



Saso hartan betiko etxean bizi ginen oraindik. Garbi gogoratzen ditut atariko harlauzak, orri biko burdin hesia eta zur landuzko balaustrada zabala. Ez ginen aberatsak; aitita-amumei handiki batzuek alokairuan utzitako pisu zaharkitua zen hura, baina horrexegatik genuen, hain zuzen ere, bainuontzi eta guztiko etxe batean bizitzeko pribilegioa, nahiz eta laster, hirurogeita hamarreko goraldi ekonomikoarekin, familia askok gurea baino bizileku dotoreagoak luzitu ahal izango zituzten.

Amari gustatu egiten zitzaion xehetasun hori aipatzea:

—Txikitan lagunak ekartzen nituen bainuontzia ikustera — esaten zidan, antigoleko etxearen kategoria nabarmentzeko.

Hala ere, bainuontzia ez genuen apenas erabiltzen. Ni neu latorrizko terraina batean bainatzen ninduten ezkaratzean zapatuoro, sutegiko txapan ura berotuta.

Aita izan zen bainuontzia erabiltzeko ohitura abiatu zuena. Portzelanazko pomoek kirrinka egin zuten, eta kanilak penaz isuri zituen hari oker batzuk, harik eta iturginak beharrezko ukituak egin zizkion arte.

Latorrizko terraina txiki geratu zitzaidanean, neu ere hasi nintzen azuleju nakaratuak eta marrazki geometriko koloretsuak zituen baldosa hidraulikodun bainugelaz gozatzen.

—Bizkor ibili, butanoa arin gastatzen da eta —estutzen ninduen amak.

—Bits asko egiteko moduko xaboia erosi behar duzu, Oesteko pelikuletan lez bainatzeko —ekiten nion.

—Zuk ez daukazu zikinik baina.

Domestikoko sagararak

Miren Agur Meabe
2014ko abuztuaren 5a



Aita itsasoan ibiltzen zen mekaniko, hogeitaka eguneko kanpainetan Gran Sol inguruan. Lehorrerutzen zen bakoitzean, amak otordu gogokoena apailatzen zion, eta ileapaindegira joaten zen astegun buruzuria izan arren. Ile mehe-mehea zeukan, sarri garbitu arren beti koipeztua, neuk legez, eta aitak zirikatu egiten zuen ile-lumatxak zirela-eta. Aurrerago konturatu nintzenez, arrazoi hobeak zituen berak aita gaitzesteko, bere izaera latz eta aldaberagatik ezezik, baita orain aipatuko ez ditudan bestelako motibo higieniko batzuentzat ere. Alabaina, bikote barruan nork bere papera jokatzeko du, ia ohartu gabe harrotzeraino, eta dudarik ez honetan, nire gurasoek elkar maite zuten.

Zerbait gertatu zen, ordea, aitaren mesfidantza piztu zuena. Gertaera hartan, zoritxarrez, izan nuen zerikusirik, eta halaxe ulertu nuen mugarririk ez zegoela umeon eta helduen begiradaren artean. Pentsatzekoa da orduan ikasitakoak gerora zuhurrago izateko balioko zidala, baina ez nago segurua, gaur egun ere diskrezioa ez da-eta nire bertute nagusia.

Domeka eguerdi batean, ama eta biok hondartzatik etxera gindoazela, sagarrak saltzen zituen gizon batekin egin genuen topo.

Amak soineko berde bat zeukan jantzita, oso ondo ematen ziona.

—Andretxua, sagarrak ez duzu behar?

Sagar-saltzaileak begi urdinak zituen eta ilezuria zen. Niri zaharra begitandu zitzaidan.

—Etxera ere eroaten ditut, kaxa osoa enkargatuz gero.

Amak neuri begiratu, eta galdetu zidan:

—Hartuko ditugu aitari entzatzat? Sagarra ona da diabetikoentzat azukre gutxi daukalako.

Uste dut baietz esan nuela. Neskatxo batek zinez sinesten du bere amak baduela behar besteko sena abian jartzen dituen negozioen arriskua kalkulatzeko.

Halandaze, Simon sagarrak ekartzen hasi zitzaigun domekero. Arratsaldeko laurak aldean jotzen zuen tinbrea, aitik telebista zuri-beltzaren aurrean lo-kuluxka egiten zuen orduan. Amak tresnak harraskan utzi, amantala di-da kendu, korridoreko ispiluan bere buruari begiratu azkarra egin, eta atea irekitzen zuen. Simonek kuarto ilunean uzten zituen sagarrak —despentsa, arropategi eta trastelekutzat erabiltzen genuen gela luzangan—, eta segituan alde egiten zuen, amak billete batekin ordaindu eta gero.

Gurean ez zen falta sagar-konpota, tarta edota marmeladarik. Simonen sagarrak estimatuak genituen, haien azalaren kolorea, haien mamiaren guria.

Halako domeka batean, amak kafea eskaini zion Simoni, eta etxera sartu zuen. Geroxeago, atera lagundu zionean, gizonak esan zion amari:

—Pena da, ba, zu lako andretxu batek senarra itsasoan izatea.

Amak atea itxi zuen, serio, agurtu gabe.

Arratsalde hartan, amak bainuontzia estreinatu zuen. Zinera joana nintzen lagunekin, baina etxera bueltatu nintzen tripako minez, komunean sartu, eta ikusi egin nuen.

Hego-haize hodei gorritzek azala tindatzen zioten leihotik barrura. Sagar mordo bat zeukan uretan, bere inguruan flotean, brontzeko ukabil sorta bat bezain ederrak. Ilea bekokian itsatsita zeukan, lurrunagatik, begiak itxita, eta zerbait esaten ari zen ahapeka, ulertu ez nuena. Zortzi urte dituzunean ezin dituzu berba denak ulertu, zugandik ezin hurbilago entzunda ere.

Kikaren txintxin-hotsa aditu zen sukaldean aitak arasari ostikoaz jo zionean. Nahiago nuke ahaztu aitak edozergatik haserretzeko zeukan erraztasuna. Hala ere, orduko suminaldia ez zen azalderia batengatik izan.

Itsasotik etorri berria zen, eta sagar erreak gorai patzen ari zen, ahoan urtzeko modukoak zirela eta.

—Sagar apartak benetan.

Orduan nik esan nuen:

—Bai gero, pasa den domekan amatxu sagar artean bainatu zen eta.

Aitari karramarrako beltzak bihurtu zitzaizkion begiak, arasari sekulako ostia jo, eta kalera atera zen euri-zaparradatan. Gauean, ohean nengoela, giltza sentitu nuen sarrailan eta ama mainaka, barka eske.

Nire komentarioa epaile baten mailukada bezain boteretsua izan zen, baina nago inozentzia bota nuela, nahi barik hautsiz amarekiko konplizitatea. Ala kanpora egotzi behar ote nuen barruan neukan harra?

Biharamun goizaldean aitak itsasora alde egin zuen, betiko legean. Amak begitarte iluna zuen, baina adiskideturik-edo zeuden, aitak musu arin bat ematen utzi baitzion.

Luze gabe, amak bainuontzia bete zuen ur hotzez, ertzeraino. Ohetik atera, belaunikatzeko agindu, eta ileetatik tira egin zidan, burua ondo murgildu arte. Indarrez sakatu zidan puska eder batean.